

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**232/2021 Foru Agindua, irailaren 3koa. Hasierako onespena ematea, Lacervillan, Berantevillako lurzoru urbanizaezinean, hondakin uren araztegi (HUA) berriaren proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari**

Urbide Arabako Ur Partzuergoak (aurrerantzean, Urbide) obretarako udal baimena eskatu dio Berantevillako Udalari, Lacervillan hondakin uren araztegi (HUA) berria egiteko proiekturako.

Berantevillako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Proiektu teknikoan jasota dago proiektuaren xedea 50 biztanleren baliokidearentzako arazketa sistema berri bat dela, dekantagailu-digestore sistema trinko batez eta hormigoï armatuzko biltegi aurrefabrikatuz egindako iragazki biologiko batez osatua. Ur araztua biltegien behaldeen bilduko da eta irteerako hodira eramango, isurketa puntuan husteko. Multzo osoaren perimetroa itxiko da, 2 metroko altuerako maila sare batekin. Lacervillako herrigunetik arazketa sistemaren kokaleku berrira arte hondakin uren saneamenduko kolektorea berritzea proiektatu da. Araztegi berrira sartzeko 3,50 metroko zabalerako bide bat egitea aurreikusitako da. Dokumentuan jasota dago kontuan hartu dela Lacervilla zonaren ekologia eta paisaia balioa, ahalik eta agresibitatearik txikieneko trazadura proposatu dela eta obraren estetika ere kontuan hartu dela.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen denez, sare berria, HUA berria eta erreforma doan azken isurbidea ez dira aurreko sistemaren kokapen berean egingo, eta, beraz, lurzoruaren okupazioa aldatuko da, eta HUA eta azken isurbidea lurzoru urbanizaezinean kokatuko dira. Proiektu osoak honako katastro lurzati hauei eragiten die: 2-382, Huertas kalea, 2-176, 2-175, 2-234 eta 2-110 A eta B. Proiektuaren zati batek urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri lurzoruari eragiten dio (LA.05)-bizitegirakoa, eta sektorizatutako lurzoru urbanizagarriari (LA.06)-bizitegirakoa. Zehazki, araztegi berria 2 poligonoko 110-B azpirluzatian kokatzea aurreikusten da, Berantevillako lurzoru urbanizaezinean, zeina "J.2.5. Zaindutako zonak: Nekazaritza eta abeltzaintza interesekoak" gisa kalifikatuta baitago. Berantevillako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 1.6.1.2 artikulua honako hau ezartzen du: "Babes bereziko J1 eta zaindutako J2 landa zonetan kalifikazio orokorrak zuzenean baimendutako eraikuntzako erabilera eta jarduerak"; 8. apartatua: "Nekazaritza eta abeltzaintza arloko interesa dela eta zaindutako J.2.5 zonan baimendutako erabilera. a) Interes sozialeko eta erabilera publikoko eraikinak eta instalazioak, beren izaera eta ezaugarriak direla eta, ezinbestean zona honetan kokatu behar direnak. (...)".

Espedientean jasota dago udal txosten teknikoak, aldez aurreko jakinarazpenaren araubidearen mendeko jarduerak sailkatuaren katalogazioari buruzkoa, bai eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak hondakin urak isurtzeko baimena emateko emandako ebazpena ere.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, kasu honetan, Urbide Arabako Ur Partzuergoa da proiektuaren erakunde sustatzailea, eta haren presidentea da Josean Galera Carrillo jauna, Ingurumen

eta Hirigintza Saileko diputatua. Horiek horrela, Berantevillako Udalari aurkeztutako obra lizentziaren eskaera sinatu du, eta hasiera eman dio administrazio prozedurari, zeinaren zati baita espediente honen xede den interes publikoko adierazpena.

Arabako Foru Aldundiko Idazkaritza Nagusiak emandako ziurtagiria aurkeztu da, eta bertan jasota dago Josean Galera Carrillo jauna abstenitu egin dela Ingurumen eta Hirigintza Saileko titular gisa. Prozedura horretan, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko titullarrak ordeztu du, 2019-2023 legegintzaldirako foru diputatuak izendatu zituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan jasotakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduerak eta erabilerak batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira"

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogege egunetz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren"

Lurzoru urbanizaezineko erabilerak eta jarduerak lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoru finkatugabeen baimentzea, harik eta urbanizatzeko jarduketara programa abiaraztearen bidez haien hirigintza antolamendua gauzaten hasi arte, guztiz koherentea da Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 11.2 artikuluan eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak 19. artikuluan ezarritako higiezinaren jabetzaren estatutu araudiarekin, eta lurzoru mota orori dagokion oinarrizko lege edukia edo jatorrizkoa ezartzearekin, zeinaren bidez titularrari ematen baitzaizkio ondasunaren erabilera, gozatzeko eta ustiatzeko arrunterako ahalmenak eta baimentzen baitira lurzoruaren landa izaerarekin bat etorri eta modu arrazionalen baliatzeko erabilera egokiak eta zehatzak, hirigintzarako erabiltzea edo eraldatzea ez dakarten bitartean, bat etorri Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuaren 12.1 eta 13.1 artikuluekin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 20, 21 eta 28.3 artikuluekin.

Lurzoru urbanizaezinean baimen daitezkeen erabileren artean, Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 21.1.a) artikulua berariaz kanpoan uzten ditu aurretik dauden baserriak berreraikitzeak aukera (30. artikuluan arautua) eta baratzezaintza edo abelazkuntzako ustiakuntzari loturiko oin berriko etxebizitzak eraikitzea (31. artikuluan arautua), bi xede horiek bateraezinak direlako hirigintzako jarduketara programa onestea ekarriko duen hirigintza eraldaketarekin. Logikoki, kanpoan utzi beharrekoak dira, halaber, interes publikoko zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak, 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoak, salbuespen izaera dutelako, lursailak beren izaeraren arabera erabili, gozatu eta baliatzeko eskubidetik harago baitoaz, bat etorri Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.1 eta 13.2.e) artikuluetan xedatutakoarekin.

Hori dela eta, lurzoru urbanizagarrietatik eta hiri lurzoru finkatugabetik igarotzen den proiektuaren zatia ezin du interes publikokotzat jo aldundi honek, eta Udalak baimendu beharko du zuzenean, hala badagokio, aplikatzeko den hirigintza plangintzarekin bat etorri.

Aztertutako kasuan, hasierako onespenera izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatuak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren jardunean, haren titularraren abstentzioagatik, eta diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea, Lacervillan, Berantevillako lurzoru urbanizaezinean, hondakin uren araztegi (HUA) berriaren proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeit hamar egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta haren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 3a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua. E. D*  
*M<sup>a</sup> PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO*